

ADITU TITULUA

# LANKIDETZAZKO GOBERNANTZA AURREHARTZAILEARI BURUZKO

2024-2025

IKASI ERRONKA KONPLEXUEI AURRE EGITEKO ETA DEMOKRAZIA  
INDARTZEKO ESTRATEGIAK ETA TRESNAK

**“Lankidetzazko Gobernantza aurrehartzaileari buruzko aditu tituluak”** lankidetzazko bidezko gobernantzan praxitik sakontzea planteatzen du, erronka konplexuei aurre egiteko, balio publikoa sortzeko eta demokrazia indartzeko. **Lankidetzazko Gobernantza aurrehartzailearen oinarriko printzipioak biltzen ditu ikastaroak**, sakon aztertuz ezagutzak praktikan jartzeko **azterketakasuak, estrategiak eta tresnak**. Ikasturtean zehar, parte-hartzaileek beren aukerako **erronka praktikoa** batean lan egingo dute, esperientzia eta talde mailako **ikaskuntzan lagunduko duen erraztaile-talde baten laguntzarekin**, eta beren proiektu eta erakundeetan lankidetzazko kultura bati laguntzeko beharrezko trebetasunak eskuratuko dituzte.

Honek sustatua :



Honek emana :



Hauek diseinatu eta erraztua :



# XEHETASUN OROKORRAK

## TITULUA

UPV/EHUren berezko titulua 15 ECTS

## DATAK

Iraupena 6 hilabetekoa izango da (20 aste):

2024ko urriaren 25etik – 2025eko maiatzaren 24ra arte

## HIZKUNTZA

Formakuntza programa nagusiki **gaztelaniaz** emango da.

Materialak eta komunikazioa **gaztelaniaz eta euskaraz** egingo dira.

## KOSTUA

480,68 € (matrikula gastuak barne).  
Kostu honetan ez dira ikastaroko 4 aurrez aurreko topaketetarako bidaiei eta ostatuari lotutako gastuak sartzen, ikasleek beren gain hartuko dituzte.

## PLAZA IREKIAK

25 plaza

## MODALITATEA

**Hibridoa:** saio presentzialak eta on line saioak.

- **Aurrez aurreko saioak** 4 aldiz egingo dira Donostian. Saio horiek ostiral arratsaldean eta larunbat goizean izango dira (35 ordu inguru):

[1] 2024ko urriak 25 – 26

[2] 2025eko urtarrilak 24- 25

[3] 2025eko martxoak 21 – 22

[4] 2025eko maiatzak 23 – 24

- **Online saioak** astero egingo dira.

Online saio bakoitza 3,5 ordu iraungo ditu, asteazken arratsaldetan, 17:00etatik 20:30era (70 ordu inguru).

Aurrez aurreko eta online saioez gain, parte-hartzaileek beren kabuz astean 5 ordu lan egitea espero da, batez beste, ikastaroaren edukietan (225 ordu guztira).

## EBALUAZIOA

Ebaluazioa modu jarraituan egingo da ikasturtean zehar, eta proposatutako dinamiketan parte hartzea baloratuko da.

Lan pertsonala espezifikoki ebaluatuko da bere banakako erronkari ekitean.


# PUBLIKO HARTZAILEA

- Formakuntza programa hau antolakuntzaren testuinguruan (administrazio publikoa, enpresak, hirugarren sektorea, mundu akademikoa, gizarte zibila) lankidetzeta eta aurrea hartzeko kultura sustatu nahi duten pertsoneni dago zuzendua.
- Formakuntza programa politika publikoetan lan egiten dutenen, gizarte zibilaren ekimenak gidatzen dituztenen edo aktore ezberdinen arteko lankidetzeta eskatzen duen prozesuetan erronka konplexuak diseinatu eta jorratu behar dituzten pertsonen beharretara egokitzen da.
- Gaiari buruzko alde zuzeneko ezagutzarik behar ez den arren, parte-hartzaileek probetxu handiagoa aterako diote formakuntza programari, baldin eta lankidetzazko gobernantzaren ikuspegi testuinguru jakin batean aplikatzeko asmoa badute eta testuinguru horretan aldaketarako eragile gisa jardun badezakete.

# HELBURUAK



Lankidetzazko Gobernantzarekin zerikusia duten eta **sortzen ari diren hurbilpen ezberdinen** ikuspegi orokorra izatea nahi dugu



Lankidetzazko Gobernantzaren Euskadi, Espainia eta nazioarteko **kasu praktikoak** sakon ezagutu, eta eragile nagusiekin konektatuko dugu



**Estrategiak eta tresnak** aztertuko ditugu, Lankidetzazko Gobernantza beren proiektuetan eta erakundeetan txertatzeko eta indartzeko

# IKUSPEGIA

## ERRONKETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA PRAKTIKOA

**Tresna, instrumentu eta kasu praktikoa** aurreratu eta inspiratzaileak eskuratuko dituzu

Ezagutza **testuinguru jakin batean** aplikatuko duzu

**Eraldaketara bideratutako** gaitasun kolektiboak sortuko duzu

---

## ERRAZTEA ETA BIDELAGUNTZA

**Laguntza pertsonalizatua** jasoko duzu erronkak aztertzeko, ikaskuntzak praktikara eramateko

Ikasketa esperientzialerako, komunikatzeko eta **lankidetzan aritzeko dinamika** kolektiboak landuko dituzu

Parte-hartzaileen artean **ezagutza praktikoa** eraikiko duzu

---

## KOMUNITATEA SORTZEA

Parte-hartzaileen artean **esperientziak** trukatzea

**Erakundeen eta sareen** artean praktika-komunitate bat eraikitzea

Formakuntza programaren **edizio bakoitzean haziko den komunitatea** mantentzea

# EDUKIAK

Formakuntza programan, lankidetzazko eta aurrea hartzeko gobernantzarekin lotutako kontzeptuen ikuspegi orokorra lantzen da, 5 gai-multzotan sakonduz eta hiru ikuspegitatik lan eginez:



**01** Lankidetzazko gobernantza aurrehartzailerako hastapenak  
MAKRO MAILA

**02** Lankidetzazko eta aurrea hartzeko gobernantza aurrehartzailerako estrategiak inspiratu eta bultzatzen dituzten marko eta ikuspegiak  
MAKRO MAILA

**03** Berrikuntza-metodologiak eta-tresnak Lankidetzazko Gobernantza aurrehartzailerako prozesuak eraikitzeko eta bultzatzeko  
MAKRO-MESO MAILA

**04** Lankidetzazko Gobernantza aurrehartzailerako ekimenetan parte hartzen duten erakundeetan aldaketaren kudeaketa  
MESO MAILA

**05** Banakako eraldaketa Lankidetzazko Gobernantza aurrehartzailerako  
MIKRO MAILA

## ZEHARKAKO PROIEKTU MENTORIZATUA


Gai-multzoez gain, parte-hartzaileek hasieratik bukaerara arte **landa-lana** zeharkako proiektu batean lan egingo dute. Horretarako, beren testuinguruaren erronka bat aukeratuko dute, ezagutzak lan praktiko batean integratzeko, ikasleari esplorazio lanean eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboan lagunduko dioten erraztaileen aholkularitzarekin. Mentorea edo erraztailea parte-hartzaile bakoitzari esleitzen zaio hasieran, eta ikasturteko ibilbide osoan mantentzen da.

## IKASTE-METODOLOGIAK

Ikastaroak saio teorikoak, kasu-azterketak eta talde dinamikak konbinatuko ditu, ikasketa kolektiboa bultzatzeko. Halaber, mentoria-saioak egingo dira, parte-hartzaileei beren erronken testuinguruan kokatzen eta horiei ekiten laguntzeko. Saio guztietan, parte-hartzaileen eta hizlarien arteko elkarrizketan oinarritutako ariketa praktikoak egingo dira.

EDUKI  
XEHATUAK





# 01

## Lankidetzazko gobernantzaren eta gobernantza aurrehartzaillearen hastapenak

MAKRO MAILA


### HELBURU OROKORRA

- Lankidetzazko Gobernantza aurre-hartzailleari buruzko ezagutza orokorra eskuratzea, ikuspegi, interpretazio, eredu eta egungo joerak eta analisirako dimentsio nagusiak lankidetzazko modu hori garatzeko beharra sortu den testuinguruetan. Ikasturte osoan zehar zeharka garatuko den funtzionamendu orokorra ulertu eta portfolioan erronkak lantzeko dinamika abiatzea.

### FUNTSEZKO EDUKIA

- Lankidetzazko Gobernantzarako hastapenak: Definizioa/ Printzipioak/ Hurbilketa desberdinak / markoak/ lankidetzazko eta gobernantza aurrehartzaillearen interpretazioak.
- Lankidetzazko Gobernantza, erronka konplexuei aurre egiteko.
- Lankidetzazko Gobernantzaren eta paradigma ideologikoaren arteko lotura.
- Testuinguruaren garrantzia: lankidetzazko-gobernantza eta lurralde-dimentsioa.
- Lankidetzazko Gobernantzako logikak aplikatu dituzten kasuen aurkezpenak.
- Portfolio batean erronkak identifikatzea (komunitatea eta taldeak eraikitzea).

# 02



## Lankidetzako eta aurrea hartzeko gobernantzako estrategiak inspiratu eta bultzatzen dituzten marko eta ikuspegiak

### MAKRO MAILA

#### HELBURU OROKORRA


- Lankidetzako Gobernantza aurre-hartzailearen estrategiak sustatzen eta bultzatzen dituzten berrikuntza-markoak eta ikuspegiak ezagutzea, erronka konplexuei aurre egiteko, erakundeak eraldatzeko, balio publikoa sortzeko eta demokrazia indartzeko Lankidetzako Gobernantzaren eta Gobernantza aurre-hartzailearen garrantzia eta ekarpena ulertzea.

#### FUNTSEZKO EDUKIA

- Lankidetzako Gobernantza aurre-hartzailearen eta berrikuntza publikoa: marko eta paradigma berriak sektore publikoan, politika eta politika publikoen kudeaketaren berrikuntzarako.
- Lankidetzako Gobernantza aurre-hartzailearen eta eragile anitzeko berrikuntza-plataformak: lankidetzak-konfigurazio desberdinak eta haien inplikazioak (aliantzak, berrikuntza sistemikoko plataformak, ekosistemak, sareak).
- Lankidetzako Gobernantza aurre-hartzailearen eta beste demokrazia mota batzuekin duen harremana: Demokrazia parte-hartzailea eta Deliberatiboa. Olatu deliberatiboa.
- «GovTech» estrategietarako hastapenak; teknologia emergenteak eta parte-hartze demokratikorako plataforma digitalak.
- Azterketa-kasuak.



# 03



## Berrikuntza-metodologiak eta-tresnak Lankidetzazko Gobernantza aurre- hartzailearen prozesuak eraikitzeko eta bultzatzeko

### MAKRO-MESO MAILA


#### HELBURU OROKORRA

- Ikuspegi oso praktiko batetik, Lankidetzazko Gobernantza aurrehartzailearen oinarritutako logika baten arabera jarduten duten ekimen eta politika publikoak kudeatzeko behar diren egiteko modu berriak ezagutzea. Prozesu horiek kudeatzeko metodologia eta tresna baliagarriak ezagutzea.

#### FUNTSEZKO EDUKIA

- Diseinuaren hastapenak eta haren Lankidetzazko Gobernantza aurrehartzailearen -prozesuetan.
- Narratiba partekatuen eraikuntza.
- Eszenatokiak sortzea eta arriskuak ebaluatzea.
- Mapatzeko eta entzuteko tresnak.
- Baterako sorkuntza.
- Koprodukzioa eta baterako kudeaketa.
- Esperimentazio-portfolioa.
- Ebaluazio Ebolutiboa.
- Komunikazioa eta ezagutzaren kudeaketa (sistematizazioa eta dibulgazioa).
- Finantzaketa.
- Eskalatzea.
- Azterketa-kasuak.

# 04



## Lankidetzazko Gobernantza aurrerartzailearen ekimenetan parte hartzen duten erakundeetan aldaketaren kudeaketa


### MESO MAILA

#### HELBURU OROKORRA

- Lankidetzazko Gobernantzak erakundeetan eragiten dituen aldaketak ulertzea (eta irekiagoak, konektatuagoak, sortzaileagoak izateko beharra). Antolamendu-aldaketa kudeatzeko tresna eta metodologia erabilgarriak eskuratzea.

#### FUNTSEZKO EDUKIA

- Lankidetzarako antolaketa-oztopoak (silok, departamentalizazioa, egitura hierarkiko bertikalak...).
- Sistema eragile bikoitzaren paradigma eta aldaketa kudeatzeko printzipioak erakundeetan.
- Lidergo-estilo berriak. Lidergo adaptatiboa.
- Deliberaziorako espazioak sortzea.
- Rol desberdinak, kolaborazioetan agentzia eta boterea (power awareness).
- Gaitasunak sortzeko espazioak eta metagobernantzarako espazioak eraikitzea.



# 05

## Banakako eraldaketa Lankidetzazko Gobernantza aurre-hartzailerako


MIKRO MAILA

### HELBURU OROKORRA

- Autoezagutzan aurrera egiteko eta maila indibidualean behar diren ezagutza, trebetasun, jarrera eta tresna baliagarri nagusiak ezagutzea, lankidetzazko gobernantzaren testuinguruan. Ikasleak ahalduntzen laguntzea, beren erakundeetan aldaketarako -eragile gisa jarduteko. Horrelako prozesuetan parte hartu duten pertsonen banakako eraldaketako esperientziak partekatzea.

### FUNTSEZKO EDUKIA

- Maila indibidualean behar diren profilak, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak Lankidetzazko Gobernantzaren testuinguruan.
- Erraztaileen profila.
- Generoaren dimentsioa Lankidetzazko Gobernantza prozesuetan.
- Gizabanakoaren rola aldaketa-eragile gisa (*boundary spanner*). Charmer eta Senge-ren U teoria.
- Lankidetzazko gaitasunen inguruko coaching-dinamikak.
- Banakako eraldaketako esperientziak eta bizipenak.



# Gaitasunak integratzea eta erronketan oinarritutako lana

“LANDA-LANA”

## HELBURU OROKORRA

- Erronkak esploratzen eta ikasitakoa praktikan jartzen laguntzen duen zeharkako errazte- eta laguntza-blokea. Horrela egituratuko da: ikaskuntza esperientziala erraztuko duten talde-dinamikak, banakako eta taldeko saioak, eta harreman-sare batean integratzea gaituko da (pertsonekin konexioa, sareak, eta esperientzia praktiko aurreratuak eta inspiraziozkoak).

## FUNTSEZKO EDUKIA

- Ikasturtean zehar lortutako kompetentziak integratzea eta finkatzea, ikasleak aukeratutako berriazko erronka bati aplikatuz.
- Lankidetzeta-espirtua eta ikaskuntza gurutzatua sustatzea, erronken portfolio bat ezartzera bideratuta.
- Gaiaren inguruko eragileak, sareak, foroak eta komunitateak ezagutzea, praktika-komunitate bat ezartzea errazteko.



## KONTAKTUA

info@gobernanzacolaborativa.com

+34 943018529

Honek sustatua :



Honek emana :



Hauek diseinatu eta erraztua :

